



## FAKULTATIBOEK BILTZAR ETA ANTZEKOETAN PARTE HARTZEAREN GAINEKO ARAUDIA – DIRU LAGUNTZAK

1. Lanorduetan ikastaro, biltzar, irakaskuntza-ospitale edo prestakuntza-zentroetan parte hartzea, diru-laguntza behar izanda zein bestela finantzaturik, dagokion Zerbitzuko buruak eta zuzendari medikoak baimendu beharko dute aurretik idatziz.
2. Osakidetzako Lan-baldintzen Akordioan ezarritakoarekin bat, baimen horiek zerbitzuko beharren arabera emango dira, urtean 15 egun natural, gehienez.
3. Ikastaro, biltzar, irakaskuntza-ospitale edo prestakuntza-zentroetan parte hartzeari begirako diru-hornidura, fakultatibo guztientzat da. Diru-laguntzak, horretarako den Diru-laguntzetarako Batzordeak proposatuta emango dira; Batzorde hori, Fakultatiboen Elkarteko eta Irakaskuntza Batzordeko kideek osatzen dute.
4. Diru-laguntzak ematen direnean, zenbateko hauek ordainduko dira:

📌 Bidaia-gastuak: erabilitako garraio bide publikoari dagokion zenbatekoa (hegazkina, autobusa, etab.). Norberaren ibilgailua erabiliz gero, **0,29 euro** ordainduko dira **kilometroko**.

📌 Ikastaroetako izen-ematea % 50ean finantzatuko da, eta biltzarretakoa % 100ean.

📌 Dietetan, ostatua, otorduak, taxi bidezko desplazamenduak, etab. sartzen dira.

### 75 euro eguneko (Estatuan zein nazioartean)

5. Diru-funtsa, berez, dagokion urterako da; eta, kopuruari dagokionez, itxia izango da. Hala ere, Zuzendaritzak berariaz erabakita, eta horren kontra inolako araurik ez badago, ekitaldi batetik bestera transferitu liteke.
6. Hauek dira diru-laguntzak emateko irizpideak:

### Ikastaro edo sinposioetan parte hartzea

Lotura eduki behar dute eskatzen duen plantillako profesionalaren jarduerarekin. Egoitza-aldiko hirugarren urtetik aurrera, Egoiliarrek eskubidea izango dute urtean mota honetako jarduera baten finantziazioa jasotzeko, baldin eta urte horretan bestelako laguntzarik jaso ez badute Biltzarretan parte hartzeagatik. Aldeko txosten arrazoitua egin beharko du dagokion zerbitzuburu edo atalburuak; eta, bertan zehaztu beharko du zergatik den komenigarria edo beharrezkoa eskatzaileak parte hartzea.



### **Especialitateko biltzarretan parte hartzea**

Fakultatiboek Biltzarretan parte hartzeari dagokionez, diru-laguntza ematen zaie Komunikazio bat edo Txosten bat aurkezten dutenei, edo Biltzarretako Mahai bateko kide direnei. Ezinbestez bete beharreko baldintzak dira, edozein laguntza jasotzeko aukera edukitzeko. Derrigorrez aurkeztu beharko da Biltzarreko Antolamendu Idazkaritzaren ziurtagiria, era ofizialean izendatu edo onartu dela eta dagokion moduan aurkeztu dela egiaztatzeko.

Bestetik, beharrezkoa da zerbitzuko edo unitateko arduradunaren oniritzia eta aldeko txostena; eta, bertan, egindako lanaren ezaugarriak azaldu behar dira.

Eskatzaile bat baino gehiago izanez gero (komunikazioa sinatzen dutenak), diru-laguntza bakarrik emango zaio aurkezpena egiten duen pertsonari.

Azkenik, goiburuan jarri beharrekoak dira Basurtuko Unibertsitate Ospitalearen eta dagokion zerbitzuaren izenak, baita Komunikazioa aurkezten duen taldearena ere.

### **Irakaskuntza-ospitale edo prestakuntza-zentroetan parte hartzea**

Helburua izan behar da teknika berrien gaineko prestakuntza hartzea, dagokion zerbitzuko asistentzia-jarduera hobetzeari begira. Urtean, gehienez, 15 egunetarako diru-laguntza emango da.

### **Irizpide osagarriak**

Fakultatibo batek urte naturalaren barruan diru-laguntzarako eskaera bat baino gehiago eginez gero (ikastaro edo biltzar batera baino gehiagotara joateko), lehenengoa emango zaio, hala badagokio; eta, urte amaierara arte itxaron beharko du beste eskaerentarako. Horiei dagokienez, eman egingo zaizkio baldin eta diru nahikoa geratu bada.

7. Eskabideak aurkezteko epea, prestakuntza-jarduera amaitu eta 15 egun igarota amaitzen da.
8. Diru-laguntzak prestakuntza-jarduera amaituta emango dira beti; eta, horretarako, aurretik aurkeztu behar dira jardueran parte hartu izanaren eta egindako gastuen jatorrizko ziurtagiriak.

Bilbon, bi mila eta hemezortziko urtarrilaren bostean

 Osakidetza  
BILBAO-BASURTO ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA  
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA BILBAO-BASURTO  
  
ZUZENDARI GERENTEA  
DIRECTOR GERENTE  
Izpt/Fdo.: Eduardo Maiz Olazabalaga

**Zuzendari gerentea**

**Presidentea  
Diru-laguntzetarako**

**Batzordea**